



<b>Ekipoa</b>	<b>NO<sub>x</sub> emisio gutxiko erregailuak (NO<sub>x</sub> emisioak &lt; 100 mg/ Nm<sup>3</sup> gas-erregailuetan, NO<sub>x</sub> emisioak &lt; 300 mg/ Nm<sup>3</sup> erregai likidoko erregailuetan)</b>
<b>Kodea</b>	B-2012
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	Nitrogeno oxidoen emisioak murrizten ditu.
<b>Honetan datza:</b>	<p>NO<sub>x</sub> emisio gutxiko erregailuak dira nitrogeno oxidoen emisioak murrizteko diseinatutako errekuntza-instalazioak. Erregailu horien diseinuari buruzko xehetasunetan alde handia dago, fabrikatzaileen arabera; beraz, txosten honetan, funtzionamenduaren printzipio orokorra soilik azalduko dugu.</p> <p>Errekuntza klasikoko instalazio batean, oxigenoa/erregaia eta airea konbinatzen dituzten nahasturak leku berean injektatzen dira. Horrenbestez, errekuntza horren ondorioz sortzen den sugarrak eremu nagusi bat izaten – beroa eta oxidaziozkoa– sugarraren erroan eta bigarren mailako eremu bat – hotzagoa– sugarraren muturrean. Eremu nagusi horrek sortzen du NO gehiena, eta esponentzialki hazten da tenperaturarekin batera. Bigarren mailako eremuak, berriz, nitrogeno oxidoen emisio gutxi sortzen du.</p> <p>NO<sub>x</sub> emisio gutxiko erregailuek airea eta erregaia sartzeko bitartekoak aldatzen dituzte nahastura atzeratzeko, oxigenoaren eskuragarritasuna murrizteko eta sugarraren puntako tenperatura murrizteko. Erregailu horien bidez, erregaiarekin elkartutako nitrogenoa NO<sub>x</sub> bihurtzea eta NO<sub>x</sub> termikoa sortzea atzeratzen da, eta, aldi berean, errekuntzak eraginkortasun handia du.</p> <p>NO<sub>x</sub> gutxiago sortzeko printzipioak oinarri hartuta, NO<sub>x</sub> emisio gutxiko erregailuak garatu dituzte, eta aire-etapa, erregaia/gasa berriz zirkulatzea eta erregai-etapa duten erregailuak sortu dituzte. Azkenaldian diseinatutako erregailuek aire-etapa, erregai-etapa eta erregaia/gasa berriz zirkulatzea nahasten dituzte teknika berrieekin, NO<sub>x</sub> emisio oso txikiak lortzeko.</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</b>	<p>NO<sub>x</sub> emisio gutxiko erregailuak instalatzeko inbertsioetarako laguntzetatik kanpo geratzen dira &gt; 500 Mwth-ko errekuntza-instalazioak.</p> <p>Halaber, kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>NO<sub>x</sub> emisio gutxiko erregailuak sektore askotako errekuntza-instalazioetan jartzen dira, adibidez, honako hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nekazaritza: uzten laborantzak (kristalezko berotegietako laborantza) (NACE 01.19, 01.28 eta 01.29).</li> </ul>



- |  |  |
|--|--|
|  | <ul style="list-style-type: none"><li>- Elikagaien industria (NACE 10, ia azpisektore guztiak).</li><li>- Paper-orearen, paperaren eta bestelako paperezko produktuen fabrikazioa (NACE 17.1).</li><li>- Petrolio-produktu finduen fabrikazioa (NACE 19.2).</li><li>- Produktu kimikoen fabrikazioa (NACE 20).</li><li>- Oinarrizko metalen fabrikazioa (NACE 24).</li></ul> |
|--|--|